


ARRETAZ ENTZUTEN DUT**Zurrumurruak**

Komunikazioa ona ez denean, gatazka sor daiteke. Lagun eta gelakideekin gaudenean, egiaztatu behar dugu ondo ulertu dugula esan dutena. Beraz, hitz egiten duenak zehatza izan behar du: ondo uler diezaioten. Entzuten duenak, berriz, ahalegina egin behar du arreta jartzeko eta ondo ulertzeko.

Jar dezagun aste honetan jende asko gaixorik egon dela gripeak jota: bost ikasle gaixorik daude (gelatik kanpo aterako dira).

Irakasleak istorioa edo albiste bat kontatuko du gelan zehaztasun batzuekin. Ozenki egingo du, gelan dauden ikasle guztiek entzuteko. Arreta eskatuko du.

Ausaz aukeratuko da ikasle bat, kanpora atera eta "gaixorik" dagoen bat deituko du, sendatu delako. Sendatutakoa gelan sartuko da eta bila joan den gelakideak entzun duen istorioa kontatuko dio beste guztien aurrean.

Entzun duena joango da "gaixorik" dagoen beste baten bila gelara sartzeko, eta prozesua errepikatuko du, ikasle guztiekin egin arte.

Kontatzeko adibidea:

Maidarren telefonoa

Atzo, bigarren saioan Naturaren Zientzietako saioan ginenean, Maidarren telefonoa desagertu zen. Gainera, berri-berria zen; amonak oparitu zion urtebetetzean duela gutxi.

Eta telefonoan gauza asko gordetzen ditu: musika, argazkiak, bideoak...

Agertu behar du. Esan dit bere mutilarekin egindako argazki batzuk ere hor dituela...

Maiderrekin dio ekarri zuela eta Mirenek dio berak ikusi zuela motxilako poltsikoan gorde zuela.

Gero konturatu zen poltsikoko kremlera puskatua zegoela eta telefonoa ez zegoela...

Bere atzean Josu esertzen da, baina atzo sendagilearengana joan zen, eta haren tokian Jone eseri zen.

Oraingoz biharko irteera bertan behera gelditu da eta museora joateko eman dugun dirua gordeko da telefonoa ordaintzeko; ez bada agertzen, ez gara joango museora, noski!

Jarduera egin eta gero hau aztertuko da:

Ondoren egoera aztertu daiteke galdera hauen bidez:

- ✓ Zer gertatu da?
- ✓ Nola aldatu da informazioa?
- ✓ Zergatik?
- ✓ Informazioarekin gertatu denak badu zerikusirik gatazkekin?
- ✓ Noizbait zurrumurru baten biktima izan zara? Edo halako biktimarik ezagutzen duzu?
- ✓ ...

Hizkuntzaren hainbat zehaztasunik ezak zurrumurruak zabaltzen laguntzen du: orokortzea, distortsionatzea...

Orokortzearen arriskuak (adibidearekin jarraituz):

- ✓ Gure gelan beti desagertzen dira gauzak. Zer gauza? Noiz?
- ✓ Jende guztiak daki hemen norbaitek lapurtzen duela, jende guztiak? Nork?
- ✓ Mainerrek dena galtzen du. Zer galtzen du? Noiz?
- ✓ Horrela jarraitzen baa, ez da irteera gehiago egingo. Horrela, nola?
- ✓ Amorrarazten nauzue! Nola egiten dugu?
- ✓ Ez nuen berreskuratu telefono inbidia didatelako. Nork? Zergatik?